

Antxiñako fotografixia

Lau mendigoizale ezagun eta haundi Oñatin



Oñatiarrak izan ez arren, makiña bat bider etorri ziran gure herrira, Arantzazu eta Urbixa aldera, batez be, mendixak izugarri tiraketan zittuan-eta. Euskal Herriko mendigoizaletasunaren historixan behin eta berriro agerketan xaku lau gizon honein izenak. Gaurko argazki hau 1952ko agorraren 14an atarata dago Arantzazu inguruan, **Indalezio Ojanguren** fotografo **Arrano** famauari egin xakon omenaldixetako batian. Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue lau mendizale apartok:

- 1.- **Juan San Martin Ortiz de Zarate** (Eibar, 1922 / Hondarribia, 2005). Arlo askotan nabarmendu zan: etnografo, euskal idazle, kazetari, euskaltzain, politiko eta Euskal Herriko Ararteko izan zan, bestiak beste. Baiña gazte-gaztetatik kirol asko egin eben, espeleologia, eskaladia eta mendixa bereziki. Eta Euskal Herriko, Pirineotako edota Alpetako ibillaldixetan ataratako makiña bat fotografixa eder itzi oskun.
- 2.- **Karlos Linazasoro Maiztegi** (Plaentzia-Soraluze, 1899 / Zumarraga, 1965). Gerra aurretik politiko eta euskarazko mitinlari moduan egin zan ospetsu. **Altzeta** ezizena ebalten eben. Era berian, parte haundixa hartu eben Euskal Herriko Mendi-federaziñuaren sorreran eta jarraipenian, tontorretan buzoiak ifintteko lanak eta mendizaletasunaren aldeko propagandia egiñaz. Zumarragan bizi zanez, sarrittan igoten eben Urbixa-Aizkorriara.
- 3.- **Indalezio Ojanguren Arrillaga** (Eibar, 1887 / Eibar, 1972). Euskal Herrixak emun dauen fotograforik famauenetako bat. Urte askuan zihar hainbat auzo, herri, baserri, euskal joko eta gertakari historikoren testigantza grafiko bikaiña eskuratu oskun. Hogeit bat egunkari eta aldizkarittarako lan egin eben argazkilari lez. Mendizale porrokatua izanik, hamaika gaillur eta paisaje dotore ikusi geinke bere fotografixetan, horreittako asko Oñati aldekuak.
- 4.- **Andres Espinosa Etxebarria** (Amorebieta, 1903 / Bilbo, 1985). Zornotzako seme hau izan zan, ziur asko, euskal alpinismuaren aintzindaririk inportantiena. Hemengo mendi-punta guztiak ez ezik, Europa eta Afrikako gaillur altuek zapalketara aillegau zan, orainguak baiño kondiziño askoz be zaillaguetan. Indiaraiño fan zan Himalaia ezaguetako asmotan, arazo burokratikoengatik bere ametsa bete ezpaeben be. Eta hori guztia 1936ko gerra aurretik.

Indalezio Ojangurennek Gipuzkoako Diputaziñuari eskuratu otsan bere artxibo aberatsa, 8.000 argazkittik gora, eta gaur egun sarian dagoz ikusgai, Juan San Martinen fondokuak letxe, **Gure Gipuzkoa** helbidian.

J. E.

Fotografixa Juanito San Martinen atara eben eta aittatutako internet-txoko horretan topau dogu guk. Argibide batzuk Urdin Elortzari eskertu bihar xaugu.